

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**HEZKUNTZA**

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hezkuntzak zazpi milioi inguru inbertituko du Buztintxuriko ikastetxe berrian, Castejongo institutuan eta Uharteko automobilgintzako pabiloi batean

*Erriberako udalerrri horretako ikastetxeko obrak hasi dira dagoeneko, eta datorren hastean ekingo zaie aurreikusitako beste bi azpiegituretakoei*

Ostirala, 2017.eko urtarrilak 13

### Hezkuntza

Departamentuak zazpi milioi euro inguru inbertituko ditu Castejongo DBHko institutu berriko obretan (urtarrilaren 12 an hasi ziren), bai eta Buztintxuriko (Iruña) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berriaren eta Uharteko BHIko automobilgintzako pabiloi baten eraikuntzan ere. Azken bi azpiegitura horiek datorren astean hasiko direla eraikitzen aurreikusten da (urtarrilaren 16tik 20ra).



Hezkuntza Departamentua.

Obra horiek 2016an lizitatuta eta esleituta zeuden jadanik, eta orain hasiko dira eraikuntza-lanak.

Atzo, urtarrilak 12, Castejongo DBHko institutu berriko obren zuinketa egiaztatzeko akta sinatu zen, 2.539.836,45 euroko inbertsioarekin (BEZa barne) eta zazpi hilabeteko egikaritze-epearekin. Construcciones y Obras Victorino Vicente, S.L. enpresa da lan horien arduraduna.

Buztintxuriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzeko (obrak datorren astean hasiko dira), 3.845.528,39 euro inbertituko dira (BEZa barne) eta zazpi hilabeteko egikaritze-epea du. Arbeloa Construcciones, S.L. enpresa da lan horien arduraduna.

Datorren astean hasiko dira, halaber, Uharteko BHIko automobilgintzako pabiloi bat eraikitzeko lanak, 585.114,08 euroko aurreikusitako inbertsioarekin (BEZa barne) eta bost hilabeteko egikaritze-epearekin. Enpresa esleipendunak Harinsa Navasfalt, S.A. (% 55) eta HNV Infraestructuras (% 45) dira.